



MEMORIA
www.gizaide.eus

2023

Sarrera

Hurrengo orrialdeetan, 2023 urtean egindako gure ekintzen datu esanguratsuenak jasotzen dira.

Zaurgarritasunaren beharrei zeharkako arreta integral baten bidez egiten diogu aurre bizitzako eremu guztietan, erantzun oso eta pertsonalizatuak bermatu ditzan eta beti, gure eskuhartzearen oinarrian pertsona jarritz.

Gizaide Fundazioan badakigu gure proiektuetara datozen gizabanakoen bizitza hobetzeko aukera aurkezten zaigula. Keinu txikien bidez eta laguntzeko modu ezberdinak tarteko, zailtasunak dituzten pertsonen birgaitzean eragina dugu baita ere. Batzutan honela ematen ez badu ere, norbaiti laguntzen diogun aldiro, gure ekintzak ondorio baikorra duela kontutan hartzea nahikoa da.

Elkar loturiko lanari esker eta Gizaideko partaide garen guztion ilusioz, buruko osasun arazoak dituzten pertsonen beharrak artatzen ditugu gertukoa, transbertsala eta pertsonalizatua den eskuhartzearen bidez.



Kontxi Elexpe

Gizaide Fundazioaren lehendakaria

Patronato, boluntariotza, langilego eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskerrak eman nahiko nizkieke, pertsonak zaurgarri egiten dituen hainbat egoerei modu integralean erantzuteko modua ahalbideratzen dutelako.

Misioa

Gizaidek lagundu egin nahi du bai osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen eta bai haien familia-sarearen bizi-kalitatea hobetzen, eta horretarako, edozein motatako neurri eta baliabide egoki eta kalitatezkoak sustatu eta hartu nahi ditu. Era berean, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen eskubideen alde egingo du, eta gizartea sentsibilizatzeko ahalegin-ean jarraituko du, gaixotasun mentalari buruz eta horren testuinguruari buruz kontzientzia har dezan.

Ikuspegia

Gizaide Fundazioak, bere eguneko zentroaren eta egoitzen proiektuen bidez, bermatu egin nahi ditu osasunmentaleko arazoak dituzten pertsonen eskubideak, eta, bereziki, segurtatu nahi du gizarte- eta osasun-arreta egokia ematen zaiela, autonomiaren, konfidentzialtasuna-ren eta ekitatearen printzipioak ziurtatuta. Xedea da esku hartzeko eredu bat ezartzea, arreta ematean pertsona ardatz hartzen duena, eta artatutako pertsonekin elkarlanean jardungo duena, haiek espero dutena bete dadin saiatzen, eta horretarako, lotura egonkorrak, atseginak eta enpatikoak sortuz. Gizaide Fundazioaren aburuz, pertsona gizartearen parte da, garatzen ari den eta aldakorra den gizarte baten parte, eta, beraz, Fundazioak uste du tratamendu egokia eman behar zaiola pertsonari, ezagutza eta ikerketa berrietara egokitua, eta hori behar bezala betetzen saiatuko da.

Balioak

- Berdintasuna
- Parte hartzea
- Berdintasuna
- Zintzotasuna
- Gardentasuna
- Duintasuna
- Erantzunkizuna
- Autonomia

Mugarri eta erronka garrantzitsuak

Mugarriak

Aurten ere ahalik eta zerbitzu, laguntza eta babesik onena ematen lan egiten saiatu gara.

Horretarako, ezinbestekoa da gizarteko eta testuinguruko beharren aldaketak eta baliabideen errealitateak egiaztatzea, 2023-2028 ko Euskadiko Buru Osasuneko Estrategiak adierazten duen moduan.

Etengabeko formakuntza eta beste erakunde eta esperientziak dituzten eragileekin elkarlana eta elkarrekin eskuhartze zuzeneko praktika berriak ikastea taldeen motibaziorako arrazoi izan behar dute.

Gizarte eta osasun eremuko administrazioako lankidetzak balio handia dauka, arlo eta funtzio ezberdinetatik baina koordinazio estuan, beharrezko dituen babesak jasotzera baliabideetara jotzen duten pertsonengan ardazturiko arreta eman daitekeelako.

Boluntarioen lanaren aitorpena akonpainamenduaren eta arlo emozionalen eta harreman sareen indartzearen adierazle gorengo

gisa. Aurten, beraien ekarpenaren ikusgarritasun eta aitorpenaren inguruan aurreko urtetan finkaturiko helburuak lortzeko dinamikak garatzen hasi dira.

Buruko Osasunaren zabalkunde eta sentsibilizazioaren inguruan ekintzak egiten jarraitzea futnsezkoa da, gisa honetan agenda politikoan lehentasunezko lekua izn dezan eta gizarte estigmaterekin amai dadin.

Osasunaren sustampenak eta gaixotasunaren prebentzioak eguneroko gure ekintzak gidatu behar ditu. Guregana datozen pertsonen ezin dute beren egunerakotasunean dituzten muga asko ekidin baina orduan ere, gaitasun eta trebeziak landu behar dira prebentzio eta babes neurri moduan.

Laguntzaile Sarea hedatu, osasunaz haratago, ongizatea ahalbideratzen duen faktore gisa. Aurten, “Gertu kultura” ezagutu dugu, eta honen bidez, berriro ere gizarteratzea posible dela ikusi da.

Erronkak

Gizaidetik, malgutasun eta jarrera berritzaileak ardatz harturik, 2024 urterako finkatzen ditugun erronkak honako hauek dira:

- Buru osasuneko gure konpromezuaren oinarri gisa plan estrategikoan jasotarikoak bete.
- Gipuzkoan antzemanten diren


beharrei erantzun egokia eskeini, horretarako ezagutza eta baliabideak eskeiniz.

- Erakunde, elkarte eta bestelako eragilekin lanean segi, sinergiak batuz.
- Boluntarioaren Plana landu egiten duten lan eta funtzioaren balioesteko lana finkatzeko.
- Gizarteko esparru ahalik eta zabalenean buru osasuneko

errealitatearen sentsibilizazio eta ikusgarritasuna, besteak beste, estigmaterekin hausteko modu gisa.

- Komunitate espazioko parte hartzea zabaltzea, parte hartze kolaboratiborako bide ezberdinak miatuz.
- Artatzen ditugun pertsonen familia eta testuinguru soziala babestu eta aholkatu.
- Berdintasun eta Hizkuntz normalkuntzaren plangintzetan jasotarikoak jorratzen jarraitu eta sakondu.
- Unibertsitate eta Eskola zentruetako konpromezua indartu, buru osasuneko profesionalak hezten dituzten heinean, formakuntza kurrikulumeko parte diren praktiketan parte hartuz.
- Buru osasun esparruko eragileen artean elkarkidetzat eta sinergiak sustatu.

Talde kideak





Egitasmo eta datuak

Etxabizitza proiektuak

Etxebizitza proiektu guztietan, ikuskaritza maila altu, ertain zein baxuan, honako atal hauek lantzen dira:

Autozaintza eta etxeko eginbeharrak. Ikuskaritza maila ezberdinarekin maila personal zein inguru-nearekiko erantzunkizuna lantzeko beharrezko argibideak ematen dira.

Formakuntza eta lan arloan, konpromezua lantzen da eta ikasketa berrien lorpena sustatzen da.

Harreman sozial egoki eta osasuntsuak izan eta mantentzen laguntzen da. Horretarako, adibidez, asertibitate eta komunikazio estiloak lantzen dira.

Familiarekin eta bestelako lotura afektiboekin harreman bakoirrak izatea ahalbideratzen da

helburu horretarako beharrezko erraztasunak ematen direlarik.

Arlo ekonomikoan norbanakoaren ekonomia antolaketa sustatzen da baktizaren gaitasun juridiko eta pertsonalaren baitan.

Beste erakundeetako aisialdi -ekintzetan parte hartzea, komunitateko edo gizarteko beste baliabideetan parte hartzea edota boluntarioekin irteerak egin ditzaten errazten da.

Osasun arloari dagokionean, gaixotasun kontzientzia lantzen da eta buru gaixotasunak eragindako krisi eta aurre seinaleak antzemateko laguntza ematen da. Era berean, prebentzio tresnak errazten dira. Esaterako, krisi egoeratan tresna gisa norengana eta nol ajo edota interesezko zenbaki eta bestelakoak ezagutarazten dira.

 **13**
emakume

Ategorrieta

Pisu tutelatua.
Ikuskaritza maila altua

- Bataz besteko adina: 56,7 urte.
- Egonaldiaren batzbestekoa: 5 urte eta hilabete bat. Urte bukaeran, gurean bizi den pertsonak urtebete eta 6 hilabete daramatza eta denbora gehien daramanak 11 urte daramatza.
- Gaitasun juridikoan Laguntza: 4 persona.
- Ezgaitasun gradua: 10 emakumek %65 edo gehiago daukate onartua.
- Eguneko jarduna: 8 persona eguneko zentro batera doaz, 4 persona tailer okupazionalan daude eta batek lan kontratua dauka.



2
emakume

2
gizon

Andoain

Pisu tutelatua.
Ikuskaritza ertaina

- Bataz besteko adina: 50,75 urte. Emakumeen bataz besteko adina 57 urtetakoa da eta 44,5 urte, gizonezkoen kasuan.
- Egonaldiaren batazbestekoa: Batazbestekoa 4,08 urte da.3 pertsonen (bi emakume eta gizonezko bat) 5 urte eta 8 hilabete daramatzate eta gizonezko batek urtebete eta 5 hilabete).Apoyo en la capacidad jurídica: 2 personas.
- Ezgaitasun gradua: Persona batek %65 a edo gehiago onartua du.
- Eguneko jarduna: 4 pertsonen tailer okupazionalera doaz.



5
plaza




Alde Zaharra

Pisu tutelatua. Ikuskaritza oso txikia

Oso ikuskaritza txikiko etxea da eta psikologoaren presentziarekin eta boluntarioen lanari esker bertan bizi diren emakumeei babes eta sostengua ematen zaie.

Etxebizitza honen helburua ostatu ematea da eta emakumeei Gizaiden ikuskaritza handiagoarekin hasitako bidean beren prozesua aurrera eraman dezaten aukerak ahalbideratzea da.



Eguneko zentroa

22
plaza



Eguneko zentroa honako ekintzak egiten dira helburu hauek lortzeko:

- Norberaren Planaren gauzatze eta jarraipena (PIR). Psikologa eta erabiltzailearen artean helburu zehatz batzu finkatzen dira eta hauen jarraipena egiten da. Horretarako taldeko esku-hartzeak eta bakarkako lana erabiltzen da.
- Arlo kognitiboa landu. Lan kognitiboa modu ezberdinetara

ematen da pertsona bakoitzaren gaitasunak kontutan hartu eta egokituz. Praktikan tailer psikoedukatiiboak eta pedagogikoak emanez garatzen dira, birgaitze kognitibo bidez eta bestalde, ariketak ere antolatzen dira.

- Konpromezu eta heldutasuna azpimarratu. Zentroko ekintzen eskeintza askotariokoa da, helburua pertsona guztien

motibazioa lortzea delako. Ikuspegi horretatik, orokorrean ekintzen parte hartze boluntarioa, ez derrigorrezkoa planteatzen da beti ere gutxiengo ekintza batzutan parte hartzeko konpromezutik.

- Harreman sozial eta pertsonalak landu eta sustatu. Zentrotik kanporako talde harremana sustatzen da. Dena den, modu koordinatuan barne lan taldearen osagarri diren espezialistak ere etortzen dira. Honela garatzen dira adibidez arteterapia, musikoterapia eta Tai-Chi.
- Egonkortasun emocional eta afektiboa bermatzen saiatu. Autoezagutza eta gaixotasunaren ezagutzak sustatu eta honek sor ditzakeen sentimenduei aurre egiteko moduak ikasi. Ezagutza lortu ostean, ongizate handiago erdiesteko estrategia ezberdinak

ikusten dira zuzendutako talde dinamika bidez, erlaxazio tallerren bidez, mindfulness, etab.

- Parte hartze espazioak ahalbideratu. Parte hartze espazioak sustatzen dira pertsona bakoitzari adierazpen aukera bat emateko.
- Aisia: Aisia ongizate pertsonalaren autopertzpeziorako atal garrantzitsua da. Aukera eta trebezia ezberdinak erakusten dira eta "erabiltzaile aditua"ren figura ere agertzen da; hau da, gai zehatz batean gaitasun eta motibazioarekin talde dinamikaren lidergoa daraman erabiltzailea.



Datuak

Zerbitzua lanegunetan eskeintzen da goizeko 10 tatik arratsaldeko 16,30 arte.

Arreta: Urtean zehar 23 pertsona artatu dira (9 gizon eta 14 emakume).


Bataz besteko adina: Bataz besteko adina 58,6 urtekoa da. Emakumeen kasuan 58 urtekoa da eta gizonezkoen kasuan 59,5 urte.

Egonaldiaren batazbestekoa: 5 urte eta 5 hilabete. Emakumeen kasuan 5 urte eta 3 hilabete eta gizonezkoen kasuan 5 urte eta 8 hilabete.

Gaitasun juridikoan Laguntza: 8 pertsona. (4 gizonezko eta 4 emakume).

Datu ekonomikoak

GIZAIDE fundazioaren kontuak urtero kanpo-ebaluazioaren esku jartzen dira, eta ALTER CONSULTINGek ikuskatu ditu 2023ko ekitaldian.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

